

Sanjustoak Begoña

Euskal ohiturak nagusi

aritz markaide

OTXARKOAGAKO Euskal Txokoa antolatuta, Justugune ospatuko da bihar Bilboko Arbolantxa auzoan, Tetuane landan hain zuzen ere. Auzo horretan euskal kultura bultzatzea da antolatzaileen asmoa. 30 urte igaro dira jai hori azkenengoz ospatu zela. Baina duela lau edo bost urte Euskal Txokoa bertako baserriar batzuekin bildu zen, eta Justugune berreskuratzea lortu zuten.

Historiaz beteriko jai horrek euskara eta baserri giroa biltzen zituen, baina Otxarkoaga inguruan gaztelania zabalduz zihoan heinean, euskararekin zerikusia zuen ia guztia desagertu egin zen. Orain dela 35 urte sortu zen auzoa, eta bertan ingurune euskaldunen eta erdaldunen egiten dute topo. Horregatik, Euskal Txokoaren helburua euskal kultura sustatzea izan da. «Ez genuke nahi euskal jaiaren hutsean gelditzerik, eta hori zaila da; oraindik ez dago oso finkaturik, baina baikor gaude», diote antolatzaileek.

Euskal Txokoa da jaiaren antolaketa arduradun osoa, baina bertako baserriarren laguntzarik gabe ezinezkoa litzateke jai arrera ateratzea. Haiek ezagutzen

egitaraua

Uztallak 8, larunbata

11:00: Meza, Goikoetxe baserrian.

11:30: Meza amaitu ondoren txokolatea eta trikitrixa izango da.

13:00: Bertso saioa, ondoko bertsolariekin: Jon Maia, Oihane Enbeita eta Aritz Lopategi.

14:30: Herri bazkaria dago antolatuta. Prezioa 900 pezetakoa da (32 libera inguru). Bazkalostean, berriz, mus txapelketa, herri jokoak eta kantuak.

21:00: Erromeria Lotz taldearekin.

Ekitaldi guztiak Otxarkoagako Euskal Txokoaren antolatutako dira, eta Tetuane Landan izango dira.

dute ondoen jai.

Euskal Txokoak ez du inolako dirulaguntzarik jasotzen jai antolatzeke, eta diru sarrera bakarra txosnek ematen dutena da. Justugune Otxarkoagako berezko jai da, bertako sustraian oi-



Euskal giroa bultzatzea dute helburu jai hauek.

narriritua, baina oraingoz ez da gehiengoaren jai. Aurten, Justo eta Pastor santuen irudiak zaharberri dituzte Elizbarrutiko Museoa. XVII. mendeko irudi horiek erretaulan gelditzen diren bakarrak dira.

Goizetik gauera arte

Euskal jai horretan parte hartu nahi duenak eguna hasten denetik izango du disfrutatzeko parada. 11:00etan emango zaio hasiera jaiari, Goikoetxe baserrian egingo den mezarekin. Ondoren, 11:30etan hain zuzen, txokolate jana antolatu dute, trikitrixa doi-

nuekin batera. Eguerdiko 13:00etan, bertso saio bat hasiko da. Bertso saioan Jon Maia, Oihane Enbeita eta Aritz Lopategi bertsolari gazteek hartuko dute parte. Sabelaren *doinuek* bertsoekin bat egiten dutenerako, antolatzaileek herri bazkari bat prestatu dute, 900 pezetaren truke. Bazkalostean, jandakoak hobeto barneratzeko-edo, mus txapelketa, herri jokoak, kantuak eta abar tartekatuko dira giro ezin hobean. Azkenik, euskal jaiari amaiera emateko, erromeria bat izango da 21:00etatik aurrera, Lotz taldearekin.

Erromeria zaharra berrituz

Justugunearen oinarrian erromeria bat dago. Gaur egun jadanik ez dira existitzen ez San Justo ermita ez bertan egiten zen erromeria, baina ohitura zahar hori berritzea da Euskal Txokoaren helburua. Primo de Riveraren garaian Bilbo inguruko auzoak handitu egin ziren, Bilborekin berearekin gertatu zen bezala; modernizazioak ohitura zaharrak zanpatu zituen arte.

Azken urteotan Justugunea ospatu izan da, baina bere kokagunea aldatuz.

San Justo ermitan ospatzen hasi zen jai hau, besteak beste, Landazabalen, Marrageroko zelietan eta Otxarkoagako Larratundun egin da. Aurten, igaroen urtean bezala, Arbolantzako Tatuane landan ospatuko da Justugune.

**OTXARKOAGAKO
EUSKAL TXOKOA**

Aupa Justu Deuna!!


Euskal kultura bultzatzen Otxarkoagan

Auzo Etxea - Pau Casals etorbidea

Tel. 94 412 18 77



etxeKIT, S.L.



ERAIKUNTZAK MODULOKA - ALOKAIURUA ETA SALMENTA

- ◆ KARPAK
- ◆ ESZENATOKIAK
- ◆ HESIAK
- ◆ TXOSNAK
- ◆ TRIBUNAK
- ◆ ALDAGELAK
- ◆ KOMUN MUGIKORRAK

☎ 94 671 04 75 - Faxe: 94 671 13 58
BARRONDO AUZO
48480 ZARATAMO

**JAIETARAKO HORNIDURAK
MUNTAIAK ETA INSTALAKUNTZAK**

GARAIA ERREFORMAK

Eskatu zure aurrekontua konpromiso gabe

Irala, 19

☎ 94 421 92 23

48012 BILBO



GORA EUSKAL
JAIK
GORA JUSTU
DEUNA
ETA
ABUZTUAREN
16TIK AURRERA
GORA ASTE
NAGUSIA

Pa..Ya-k baditu alternatibak!

MENDIOLA
Taberna

*Gora
Justu Deuna*

Monte Fuerte
parkean
ABUSU
(Arrigorriaga)